

CHURRUKA BIYOTZ AUNDIKO

UMANT DENAREN UMANTARI, 1885-GARREN URTEAN GARAGAR-ILLAREN 28-AN.



Benazko amets eder bat egiñ
Nuben nik lengo gaubean,
Nunbait ikusi bear nubela
Biyotz aundiko Damian;
Berarengatik arkitzen zaitut
Jayo ziñaden errian,
Gloriz betea, onraz jantziya
Ta gizontasun aundian.

Larogei urte igaro dira
Gauza guchi gora bera,
Joan ziñadela zeruen bidez
Trafalgarreko urera;
Etsai gogorrek zizuten ekiñ
Orduban zure gañera,
Bañan chit ondo josi zenuben
Nepomuzenon bandera.

Pelean ziñez ari ziñala
Belauna zizuten autsi,
¡Au ezta ezer! segi aurrera
Egin zenduban irrintzi;

Etzenduben nai zere ontziya,
Etsayen mendean utzi,
Glori aundiyan zure begiyak
Euskeraz ziraden ichi.

¡Ai! ura egun zoragarriya
Urriyan ogeita bata,
Zenuben artu zere laguntzat
Jaungoikoaren letarta; ¹
Beragatikian ziñaden egiñ
Umant danaren umanta,
Eta nork esan etzeradela
¿Illezkor guzien aita?

Arrazoyakin egongo ziran
Lutero-tarrak negarrez,
Chapel guziak erantzi eta
¡Ai! ¡ai! Churruka, esanez;
Garai-lariyak berak izanta
Onrak zuretzat emanetz,
Ikusgarritzat para zinduzten
Nikolas zanak dionez.

(1) Letarta = Providencia

¿Amaren baten sabeletikan
 Jayo oteda semerik,
 Itsas-lanetan eta letretan,
 Zu baño aundiagorik?
 Pakean ona, gudan gogorra,
 Biyotz bat nobleagorik,
 ¿Izandu alda? ¿izango alda
 Kosme Damian besterik?

¿Bestela nola Euriopan ta
 Oro-bat Mundu Berrian,
 Zure izena arkitutzen da
 Gloririk aundienean?
 ¿Bestela nola Ferrolen eta
 Kadiz kortea zanean,
 Zure gloriyak para zituzten
 Itsasoao ta lurrean?

Zenubelako ondo jkasi.
 Guraso zarren fedea,
 Kantatu dute, zabaldu dute
 Kondairak zure gloria.
 ¿Noiz da gertatu? ¿non da arkitzen
 Gizontasun bat obea?
 ¿Nork eman diyo Españolari
 Zuk bezelako onrea?

Onrarenгатik igo ziñaden
 Umant guziyen gañera,
 Onrarenгатik gloriyaz bete
 Zenduban zure euskera;
 Onrarenгатik zera etorri
 Gure begien aurrera,
 Onrarenгатik beti bizirik
 Munduban arkiko zera.

Motrikoako erri leyalak.
 Seme aundiak baditu,
 Baña azkena jayotakoak
 Bigotzak mugitu ditu;
 Beraren bidez dizugun zorra
 Dizugu ¡noizbait! pagatu,
 Zure onragan euskaldun danak
 Ditezen alkarganatu.

RAMOS AZCARATE.

